

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3575

72/2025 EBAZPENA, uztailaren 29koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Sondikako (Bizkaia) Befesa Zinc Oxido SAU enpresari dagokion Kanpoko Larrialdi Plana onartzeko Erabakia argitaratzeko dena.

Gobernu Kontseiluak, 2025eko uztailaren 22an egindako bilkuran, Sondikako (Bizkaia) Befesa Zinc Oxido SAU enpresari dagokion Kanpoko Larrialdi Plana onartzeko erabakia hartu zuen, eta behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Sondikako (Bizkaia) Befesa Zinc Oxido SAU enpresari dagokion Kanpoko Larrialdi Plana onartzeko erabakiaren testua. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 29a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, UZTAILAREN 29KO 72/2025 EBAZPENARENA, JAURLARITZAREN
IDAZKARITZAKO ETA LEGBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO
ZUZENDARIARENA

AKORDIOA, JAURLARITZAREN KONTSEILUARENA, BEFESA ZINC OXIDO SAU
ENPRESARI DAGOKION KANPOKO LARRIALDIETARAKO PLANA ONARTZEKO DENA

1/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 10. artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzak da Euskal Autonomia Erkidegoko babes zibila zuzentzeko eta koordinatzeko organo gorena, bere eskumenen esparruan. Testu bategin beraren 11. artikulua dioenez, Segurtasun Saila da Babes Zibileko politikaren organo arduraduna, Eusko Jaurlaritzak ezarritako helburu orokorrekin bat etorriz.

Akordio-proposamen honen xedea da goiburuan aipatzen den Kanpoko Larrialdi Plana (aurreantzean, KLP) Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea, onar dezan.

Kanpoko larrialdi-plana babes zibileko plan berezia da, eta haren helburua da kanpoko erantzuna antolatzea instalazio horietan gerta litezkeen eta enpresaren kanpoaldean eragina izan dezaketen istripu-hipotesi jakin batzuen aurrean. Ildo horretan, enpresak barneko larrialdi-planeari aurreikusi dituen neurriak osatzen ditu.

Plan horien nahitaezotasuna eta erregulazioa honako hauetan xedatutakoaren ondorio da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko uztailaren 4ko 2012/18/EB Zuzentaraua, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeari buruzkoa; Babes Zibileko Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legeak osatutako Estatuko araudia; substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien arriskua kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibileko oinarrizko jarraibidea (1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa), eta 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituen. Autonomia-erkidegoan, honako hauetan xedatutakoaren ondorio da: 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena; Euskadiko Babes Zibileko Plana, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi»; 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko; eta 34/2001 Dekretua, otsailaren 20koa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gaineko eskumenen banaketari buruzkoa.

Araudi horretan babes zibileko larrialdi bat sor dezaketen jardueren katalogo ofiziala aurreikusten da. Gainera, jarduera horiek garatzen dituzten enpresek barneko Larrialdi Plan bat izan behar dutela ezartzen du, besteak beste. Era berean, hala badagokio, agintariak kanpoko larrialdi-plan bat egitea, gerta daitezkeen istripu larrien ondorioak prebenitzeko eta, hala badagokio, arintzeko (aldez aurretik aztertuta, sailkatuta eta ebaluatuta). Plan horretan ezarritako lirateke babes-neurri egokienak, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak, eta esku hartu behar duten agintariak, organoak eta zerbitzuak koordinatzeko eskema.

Industrialek, baldin eta beren jarduerak edo produktuen biltegitratzea araudi honen aplikazio-eremuan sartzen badira, ekoizpen-prozesuei, segurtasun-politikei eta istripuen prebentzioari eta barneko larrialdi-planari buruzko informazioa eman behar diete organo eskudunei (gure kasuan, Eusko Jaurlaritzan industria-administrazioaren arloan eskumena dutenei). Industria-arloko agintaritzak eskudunek ebaluatu egiten dute aurkeztutako informazioa eta dokumentazioa, eta babes zibileko organo eskudunei ematen diete. Organo horiek kanpoko larrialdi-plana egin behar dute, industrialarien laguntzarekin.

Kanpoko Larrialdi Plana egiteko prozedurak erreferentziazko araudian xedatutakoa bete du: Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman du 2024ko abenduraren 17ko ohiko bilkuran, Babes Zibileko Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorraren aldeko txostenaren 2025eko maiatzaren 30eko ziurtagiria jaso da, eta jendaurrean jarri da Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 22ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 22. zk., 2025eko otsailaren 3koa).

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak, aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

AKORDIOA

Lehenengoa.– Befesa Zinc Oxido SAU enpresaren, Sondika (Bizkaia), Kanpoko Larrialdi Plana onartzea.

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du.